

NIRE FAMILIA AURKEZTUKO DIZUT: Familia-aniztasuna ikasgeletan barneratzeko tresna

NABIGAZIO-GIDA

1. PANTAILA NAGUSIA

Pantaila nagusian erabiltzaileak tresnaren helburuak eta bi sarbide ikusiko ditu:



1. **Irakasleentzako material didaktikoa:** Heziketarako produktu honen **alde orientatzaile**erako **sarbidea**; hemen irakasleek familia lantzeko erabil ditzaketen material didaktikoak aurkituko dituzte.
2. **Famiarekin jolasten:** Ikasleekin lan egiteko **alde praktikorako sarbidea**; hemen irakasleek familia-aniztasuna gelan lantzeko erabil dezaketen tresna aurkituko dute.

2. IRAKASLEARENTZAKO MATERIAL DIDAKTIKOA

helburuak

Haur Hezkuntzako irakasleei familia-nukleoaren elementu guztiak definitu eta osatzeko lan-materiala eskaintzea

Ikasleen familia eta gizarte-errealitate ezberdinei ikusgarritasuna ematea

Familia-aniztasuna eguneroko errealitatetzat hartzea erraztea, eta berdintasun eta begirunezko balioak txikitatik sustatzea



abc
irakaslearentzako material didaktikoa


- a. Familia-aniztasunaren garrantzia ikastetxeetan
- b. Familia eskola-curriculumean: Curriculum-gaitasun eta -edukiak
- c. Gida didaktiko-pedagogikoa
- d. Irakaslearentzako orientazioak
- e. Jarduera didaktikoak
- f. Baliabide osagarriak

Pantaila honetan irakasleek familia-aniztasunaren ikaskuntza laguntzeko zenbait **jarraibide, jarduera eta baliabide osagarri** aurkituko dituzte, 6 puntu edo sarbidetan antolatuta:

- a.- **Familia-aniztasunaren garrantzia ikastetxeetan**
- b.- **Familia eskola-curriculumean: curriculum-gaitasun eta -edukiak**
- c.- **Gida didaktiko-pedagogikoa**
- d.- **Irakasleentzako orientazioak**
- e.- **Jarduera didaktikoak**
- f.- **Baliabide osagarriak**

Puntu bakoitzean sartzerakoan, pantaila guztietako azpiko aldean atal honetako 6 puntuetarako sarbideak aurkituko ditugu. Horrez gain, pantaila nagusirako bi sarbide aurkituko ditugu.



Pantaila hau itxeko,  botoia sakatu beharko dugu. Pantaila nagusira itzuliko gara. Jarraian atal honetako puntu bakoitzean aurkituko ditugun edukiak azaltzen dira:

a.- Familia-aniztasunaren garrantzia ikastetxeetan. Irakasleek egungo **gizarte-errealitatearen deskribapena** eta hezkuntza-tresnaren helburuak aurkituko dituzte ondorengo puntu hauetan:

- Gizarte-errealitate zabala
- Eta gure gizarte-errealitatea zabaltzen duen beste zenbait gauza
- Zertarako tresna hori?

b.- Familia eskola-curriculumean: curriculum-gaitasun eta -edukiak. Hezkuntza-tresnak garatzen dituen **gaitasunen eta edukien deskribapena**.

c.- Gida didaktiko-pedagogikoa. Hezkuntza-tresnaren **helburu orokorren, helburu didaktikoen, ikasteko metodologiaren, edukien eta baliabide didaktikoen eta ebaluazio-irizpideen deskribapena**.

d.- Irakasleentzako orientazioak. Atal honetan irakasleak ikasgelan familia-aniztasunari ekiteko **jarraibideak eta orientazioak** aurkituko ditu:

- Familien errealitatearen diagnostikoa
- Familiari lotutako hezkuntza-ereduak berrikusi

- Nola aurre egin egoera konplexuei

e.- Jarduera didaktikoak. Atal honetan, irakasleak familia-aniztasuna lantzeko tresna osatzen duten 5 unitate didaktikoetarako sarbideak aurkituko ditu:

1. Hau ni naiz
2. Hau da nire familia
3. Gu
4. Eta ni zer?
5. Parkera noa

Ikasgai bakoitzean sartzekoan, **helburuak, gaitasunak, materialak, jarduerak eta ebaluazio-irizpideak** azaltzen dira. Bestalde, nabigazioari dagokionez, unitate didaktikoen pantailetan “IREKI – Unitate didaktikoa” sakatzen badugu, unitate didaktikoen zerrenda zabalduko da, eta bertatik beste unitate didaktikotara joateko aukera izango dugu.



Pantaila horien azpiko aldean, aurrekoetan bezala, “Irakaslearentzako material didaktikoa” ataleko 6 puntutarako sarbideak aurkituko ditugu.

f.- Baliabide osagarriak. Atal honetan, familia-aniztasunari buruzko **berariazko dokumentazio-zerrenda** aurkituko dugu:

- Bibliografia
- Intereseko artikulua
- Familia-aniztasunari buruzko beste baliabide batzuk

3. FAMILIAREKIN JOLASTEN

Atal honetan, ikasleekin gelan lan praktikoa egiteko tresnak aurkezten dira. Lan praktikoarean aldea jarraian azaltzen diren hiru ataletan eratzen da.



Konponketa: Hemen irakasleek ikasle bakoitzaren familia-nukleoaren kideak eratzen dituzte. **Beti da “famiarekin jolasten” sarbidearen lehen pantaila.**



Kokalekuak: Atal honetan familiakideak eguneroko testuinguruetan kokatzen dira lan-fitxen modura. **Atal honetara ezin da sartu familia eratu arte.**




Iruditeka: Hemendik tresnaren irudi-errepertorio osora sar gaitzke, familia gelan landu ahal izateko, banakako eta taldeko jardueretan (tresnaren ikonografia osoa).

“Konponketa” - Familiakideak eratzen ditugu


Pantaila nagusia “Famiarekin jolasten” sarbidea aukeratzen dugunean, “Konponketa” atalean sartuko gara zuzenean. Pantaila honetan ikasleen familia-nukleoa eratu behar da. Horretarako ondorengo prozesua jarraituko dugu:

The screenshot shows the 'Konponketa' (Family Composition) screen of the software. The title is 'nire familia aurkeztuko dizut' (I will introduce my family to you) and the subtitle is 'familia-aniztasuna ikasgeletan barneratzeko tresna' (tool for introducing family diversity in the classroom). The interface is divided into several sections:

- Left sidebar:** Contains icons for 'konponketa', 'kokalekuak', 'iruditeka', and 'material didaktikoa'.
- Top row:** Fields for 'izena' (name) with a gender icon, 'izena' (name) with a gender icon, 'izena' (name) with a gender icon, 'urtebetetzea' (birthday) with a date picker, and 'urte' (age) with a dropdown menu.
- Second row:** Two columns for 'adina' (age) with a dropdown menu.
- Third row:** Two columns for 'arropa' (clothing) with a color selection palette.
- Fourth row:** Two columns for 'arropa' (clothing) and 'gehiago' (more) with a dropdown menu.
- Fifth row:** Two columns for 'negua' (clothing) and 'uda' (clothing) with a dropdown menu.
- Bottom row:** Two columns for 'ezabatu' (delete) and 'eginal' (confirm) with a dropdown menu.



1. **“izena”**: Eratu behar dugun familiakidearen izena idatziko dugu. Sexuaren arabera emakumeen edo gizonen testu-eremuan idatziko dugu.
2. **“adina”**: Familiakidearen adin-taldea aukeratuko dugu: zaharra, heldua, nerabea, umea edo haurtxoa. Adina aukeratzekoan eraten ari garen pertsonaren irudia agertuko da, eta bere alboan bi pertsonen irudi txikiak. Horietan klik eginez, familiakidearen fisionomia aldatu ahal izango dugu (gizendu eta argaldu).
3. **“arrazza”**: Eraten ari garen familiakidearen azal-kolorea eta fisionomia aukeratuko dugu.
4. **“arropa”**: Familiakidearen jantziak aukeratuko ditugu urte-sasoaren arabera (uda edo negua).
5. **“gehiago”**: Atal honetan aniztasun funtzionalarekin zerikusia duten ezaugarriak eratzeko aukera izango dugu, adibidez, itsua edo minusbaliotasun fisikoa duen pertsona bada.
6. Azpiko kolorezko arkatzetan sakatuz, eraten ari garen pertsonaren irudiari kolorea kendu ahal izango diogu, gero ikasleak koloreztatu dezan. Irudiari kolorea itzuli nahi badiogu, aurreko edozein aukera sakatu beharko dugu (adina, arraza, arropa ...)



7. Familiakidearen ezaugarriak aldatu nahi baditugu, atzera itzuliko gara ezaugarriak berriro aukeratzeko. Bestela, **“egina”** botoia sakatuz pertsona eraten bukatuko dugu, eta automatikoki pasatuko da familiaren fitxara pantailaren eskuinaldean, non familiakide guztiak azalduko baitira kide bakoitza eraten joan ahala. Familiakidea ezabatzeko **“ezabatu”** botoia aukeratu beharko dugu.
8. Pantailako eskuinaldean ikaslearen izena eta jaioteguna idatziko ditugu.
9. Behin familiakide guztiak eratuta, eszenatoki zehatzetan kokatu ahal izango ditugu. Horretarako, eszenatokira eraman nahi ditugun familiakideak aukeratu beharko ditugu, bakoitzaren azpian agertzen den botoia sakatuz.
10. Amaitzeko, familiakideak inprimatu ahal izango ditugu inprimatu botoiaren gainean sakatuz. Bestela gezi gorria sakatu beharko dugu **“Kokalekuak”** atalera pasatzeko, non aurretik aukeratu ditugun familiakideak eszenatoki batean kokatuko baititugu.

Familiak eszenatokietan kokatzen ditugu “Kokalekuak”

Atal honetatik familiakideak testuinguru desberdinetan kokatu ahal izango ditugu lan-fitxen modura. Ikasleek eguneroko egoerak familiakideekin partekatzen dituzte, eta familiakide horiek jasoko dituzten banakako orriak osatu ahal izango dituzte irakasleek.

“Kokalekuak” atalera sartzen garenean, pantailako ezerraldean aldez aurretik “konponketa” atalean aukeratu ditugun familiakideak ikusiko ditugu.


Eskuinaldean, familiarekin parteka daitezkeen eguneroko egoerak irudikatzen dituzten 7 eszenatoki ikusiko ditugu:

- Eguberriak
- Elurra / Negua
- Hondartza / Uda
- Urtebetetzea
--ren eguna
- Parkea
- Mendia

Ez badugu eszenatokirik aukeratzen, familiakideak inprimatu ahal izango ditugu. Bestela, eszenatokia aukeratzera koan, kolorezko fitxa edo margotzeko zuri-beltzeko silueta aukeratu ahal izango dugu irudiaren gainean klik eginez.

Gure lan-fitxa inprimatzeko, “Inprimatu” botoia sakatuko dugu, eta leiho berria irekiko da inprimatzeko aukerekin. Eszenatokia inprimatu ahal izateko, bertan atzeko planoko irudiak eta koloreak aukeratzeko “hautatu” botoia sakatu beharko dugu.





Familiarekin ikasgelan lan egiten dugu “Iruditeka”

Atal honetatik hezkuntza-tresnaren irudi-errepertorio osora sar gaitzke. Bertan, irudiak inprimatu ahal izango ditugu eta, horrela, gelan landu ahal izango dugu familia kontzeptua, bai banaka bai taldeka (horma-irudiak egin, ebaki, koloreztatu, ...)

Atal honetara sartzerakoan, irakasleak irudi guztiak hiru ataletan antolatua izango ditu:

- Paisaiak
- Pertsonaiak
- Gauzak

Inprimatu nahi dugun irudi multzoa aukeratu dugu.

Eszenatokiak: nahi duzun kolorezko edo zuri-beltzezko irudiaren gainean sakatu. Inprimatzeko, “Inprimatu” botoia sakatu.

Pertsonaiak: inprimatu aurretik arraza, jantziak eta gauzak aukeratu beharko ditugu pantailaren goiko atalean. Orduan, adin guztietako pertsonaiak agertuko dira pantailaren erdiko atalean. Bertan, inprimatu nahi duguna aukeratu dugu, eta pantailaren eskuineko atalean pertsonaiaren kolorezko eta zuri-beltzezko fitxak agertuko dira. Bi fitxen artean aukeratu dugu nahi dugunaren gainean sakatuz, eta fitxaren pdf bat irekiko da inprimatzeko.

Gauzak: inprimatu nahi duzun irudiaren gainean sakatu, gero eskuineko atalean kolorezko edo zuri-beltzezko fitxen artean aukeratu eta inprimatzeko pdf bat irekiko da.

